

Sony Ericsson

XPERIA X8 -aren

Erabiltzailearen eskuliburua, bertsio laburra



Sony Ericsson

www.sonyericsson.com

Sony Ericsson Mobile Communications AB
SE-221 88 Lund, Sweden

Euskaltelek itzulitako eta
ekoiztutako eskuliburua




Telefonoaren erabiltzailearen gida

Zure telefonoak badu erabiltzailearen gida zabalagoa.

- ! Hemen aurkitu dezakezu erabiltzailearen gida zabalagoa:
www.sonyericsson.com/support.

Erabiltzailearen gidaliburura sartzeko:


- 1 **Hasierako pantailan**, arrastatu  gorantz.
- 2 Bilatu eta ukitu **Erabiltzailearen gida**.

- 💡 **Memoria-txartela ez badago telefonoan sartuta**, erabiltzailearen gidara sartzeko 2. urratsean Erabiltzailearen gida ukitu behar duzu, eta, ondoren, Lineako erabiltz. gida aukera hautatu behar duzu.

Erabiltzaileari laguntzeko aplikazioa

Erabiltzaileari laguntzeko aplikazioa Sony Ericsson-en laguntza jasotzeko leihoa da. Ikus prozeduren bideoak, jaso laguntza-albiste berrienak, sartu laguntza-eremura eta eskuratu zure telefonorako software berrienak.

Erabiltzaileari laguntzeko aplikazioa irekitzeko

- **Hasierako pantailan**, ukitu widgets-en zerranda horizontala, eta ukitu Erabiltz. laguntza .

Esperientzia gehiago. Ezagutu itzazu.

Ikus www.sonyericsson.com/support zure telefonoari buruzko informazio gehiago izateko.


Informazio garrantzitsua

Telefono mugikorra erabili aurretik, irakurri *Informazio garrantzitsua* atala.

- ! Gidaliburu honetan deskribatzen diren zenbait zerbitzu eta funtzio ez daude erabilgarri herrialde/eskualde guztietan eta ez dira bateragarriak eremu guztietako sare eta/edo zerbitzu-hornitzaile guztiekin. GSM 112 nazioarteko larrialdiko deiak egiteko zenbakiari ere aplikatzen zaio hori. Jarri harremanetan zure sare- edo zerbitzu-operadorearekin, jakiteko, batetik, zerbitzu edo funtzio espezifikoak erabilgarri dauden ala ez, eta, bestetik, noiz ezarri behar diren tasa gehigarriak funtzio horietara sartzeagatik edo horiek erabiltzeagatik.


Muntatzea eta prestatzea

Bateriaren tapa ateratzeko




- Sartu atzamarraren punta edo objektu txiki bat telefonoaren alboko irekiduran, telefonoaren eta bateriaren taparen artean, eta kendu poliki tapa.
- ! Ez erabili objektu zorrotzik, telefonoaren piezak honda ditzakete eta.

SIM txartela eta memoria-txartela sartzeko



- Sartu SIM txartela eta memoria-txartela urre-koloreko kontaktuak behera begira dituztela.

Bateria sartzeko



- Sartu bateria bateriaren erabilera-etiketak behera begira dituela eta konektoreak parez pare daudela.

Bateriaren tapa jartzeko



- 1 Jarri bateriaren taparen ezkerreko alde, telefonoaren atzeko ezkerreko aldean dauden zulotxoekin lerrotatuta.
- 2 Sakatu bateriaren taparen eskuineko alde, tapa bere tokian kokatzeko.



Telefonoa piztea eta itzaltzea

Telefonoa pizteko

- 1 Luze sakatu telefonoaren goiko aldean dagoen **⓪/Ⓜ-0** tekla.
- 2 Sakatu **⏏** pantaila desblokeatzeko.
- 3 Sartu SIM txartelaren PINa, eskatzen baduzu eta sakatu **Ados**.
- 4 Telefonoa pizten duzun lehenengo aldian, jarraitu konfigurazio-gidaren jarraibideei.

💡 **PINa** kodea sareko operadoreak emango dizu. **SIM txartelaren PIN** kodea oker sartzen baduzu eta zuzendu nahi baduzu, sakatu **✖**.

Telefonia itzaltzeko

- 1 Luze sakatu  / -0 aukeren menua bistaratu arte.
- 2 Aukeren menuan, ukitu **Itzali**.
- 3 Ukitu **Ados**.

Pantaila aktibatzeko

- Sakatu  / -0.

Telefonia lehen aldiz abiaraztea

Telefonia abiarazten duzun lehen aldian, konfigurazio-gidak lagunduko dizu telefonoko funtsezko doikuntzak sartzeko eta zure posta elektronikoko kontuak eta on line zerbitzuetako kontuak konfiguratzeko. Sony Ericsson Sync erabiltzeko une egokia ere bada, baita zure lehengo kontaktuak telefono berrian sinkronizatzea edo SIM txarteleko kontaktuak inportatzeko ere. **Ezarpenak** menutik ere sar zaitezke konfigurazio-gidan edozein unetan.

Hizkuntza ezartzeko

- 1 Mugitu gora edo behera hizkuntzen zerrendan.
- 2 Ukitu telefonoan erabili nahi duzun hizkuntza. Hizkuntza markatu egingo da.
- 3 Ukitu **Gorde**.

-  **Okerreko hizkuntza hautatzen baduzu eta menuetako testuak ezin badituzu irakurri, ikus www.sonyericsson.com/support gunea, laguntza eskuratzeko.**

Mezuen eta Interneten ezarpenak

Testua eta multimedia-mezuak bidaltzeko eta Interneten sartzeko, mugikorretarako 2G/3G datu-konexio bat eta ezarpen egokiak izan behar dituzu. Ezarpenak eskuratzeko zenbait modu daude:

- Telefonía mugikorreko sare eta operadore gehienek kasuan, Interneteko ezarpenak eta mezularitzako ezarpenak aurrez instalatuta egoten dira telefonoan. Beraz, zuzenean has zaitezke Internet erabiltzen eta mezuak bidaltzen.
- Kasu batzuetan, Interneteko eta mezularitzako ezarpenak telefonoa pizten duzun lehen aldia deskargatu ahal izango dituzu. Ezarpen horiek aurrerago ere deskargatu ahal izango dituzu **Ezarpenak** menutik.
- Edozein unetan zure telefonoko Interneteko eta sareko ezarpenak eskuz erantsi edo aldatu ahal izango dituzu. Jarri harremanetan zure sare-operadorearekin Interneteko eta mezularitzako ezarpenei buruzko informazio gehiago eskuratzeko.


SIM txarteletik kontaktuak inportatzeko

- **Telefonotik SIM txartel batera kontaktuak kopiatzen dituzunean, kontaktu bakoitzaren kasuan transferi daitezkeen informazio-kopurua eta -mota mugatuak dira. Bi telefonoren artean kontaktuak kopiatzeko laguntza eskuratzeko, ikus www.sonyericsson.com/support zure ordenagailuan.**
- 1 Zure telefonoa lehen aldiz abiarazten duzunean, konfigurazio-laguntzaileak SIMeko kontaktuak inportatu nahi dituzun galdetuko ditu. Ukitu **Inportatu kontaktuak**.
 - 2 SIM txarteletik telefonora kontaktuak inportatu nahi dituzun berresteko eskatzen dizunean, ukitu Sí.

Ordua eta data ezartzeko

- 1 Konfigurazio-gidan, ukitu **Ordua eta data**.
- 2 Ezeztatu **Automatikoa** egiaztatze-laukitxoá, markatuta baldin badago.
- 3 Ukitu **Ezarri data** edo **Ezarri ordua**.
- 4 Ukitu **+** edo **-** data edo ordua eta minutuak doitzeko.
- 5 Ukitu **Ezarri**.

6 Sakatu  konfigurazio-gidara itzultzeko.


 **Ordua doitzen ari zarenean, 12 eta 24 orduko formatua hautatu behar duzu. AM eta PM erabili nahi baduzu, 24 orduko formatua aukera ezeztatu behar duzu.**

Zure telefonoa Google®-ren zerbitzuak erabiltzeko konfiguratzeko

- 1 Konfigurazio-gidan, ukitu **Google-ko kontua**.
- 2 Ukitu **Next**.
- 3 Ukitu **Sign in**, Google®-ren kontu bat erabili nahi baduzu, edo **Create**, kontu bat sortu nahi baduzu. Segi pantailako jarraibideei, zure telefonoan Google®-ren kontu bat konfiguratzez amaitzeko.

Posta elektronikoko kontu bat konfiguratzeko

- 1 Konfigurazio-gidan, ukitu **Posta elektronikoa**.
- 2 Ukitu Helbide elektronikoa, idatzi zure helbide elektronikoa, eta ukitu **Jarraitu**.
- 3 Sartu pasahitza eta ukitu **Eginda**.
- 4 Ukitu **Jarraitu**.
- 5 Telefonoak ezin baditu deskargatu automatikoki posta elektronikoko baten kontuko ezarpenak, sartu eskuz.

 **Ezarpenak eskuz sartu behar badituzu, jarri harremanetan zure posta elektronikoko zerbitzu-hornitzailearekin, kontu-ezarpen egokiak eskuratzeko. Adibidez, jakin behar duzu zure kontu-mota POP3 edo IMAP den.**

Timescape® konfiguratzeko, Facebook®-rekin funtziona dezan

- 1 Konfigurazio-gidan, ukitu **Facebook**.
- 2 Ukitu **Sartu izena**, sartu Facebook®-ko zure erabiltzaile-izena, eta ukitu **Jarraitu**.
- 3 Sartu pasahitza eta ukitu **Eginda**.

Timescape® konfiguratzeko, Twitter®-rekin funtziona dezan

- 1 Konfigurazio-gidan, ukitu **Twitter**.
- 2 Ukitu **Erabiltzaile-izena**, sartu Twitter®-ko zure erabiltzaile-izena, eta ukitu **Jarraitu**.
- 3 Sartu pasahitza eta ukitu **Eginda**.

Kontaktuak Sony Ericsson Sync-en bidez transferitzeko

- **Modu hau erabilia zure telefono berrira kontaktuak transferitzeko, lehenengo Sony Ericsson-en kontu bat konfiguratu behar duzu, eta zure lehenengo telefonoa kontu horrekin sinkronizatu. Ikus www.sonyericsson.com/user informazio gehiago eskuratzeko.**

- 1 Konfigurazio-gidan, ukitu **Sink**.
- 2 Ukitu **Sony Ericsson Sync**.
- 3 Idatzi zure erabiltzaile-izena eta pasahitza, eta, ondoren, ukitu **Log in**.
- 4 Ukitu **Save**. Orain, kontaktuak, egutegiko gertakizunak eta gogokoak sinkronizatuko ditu telefonoak Sony Ericssoneko zure kontuarekin.
- 5 Sakatu ← konfigurazio-gidara itzultzeko.

Konfigurazio-gidatik ateratzeko

- Konfigurazio-gidatik atera nahi duzunean, ukitu **Eginda**.


Konfigurazio-gidara sartzeko

- 1 Hasierako pantailan, arrastatu ▲ gorantz.
- 2 Bilatu eta ukitu **Ezarpenak > Oinarrizko ezarpenak > Konfigurazio-gida**


Ezagutu ezazu zure telefonoa

Telefonoaren deskribapen orokorra

- 1 3,5 mm-ko entzungailuarentzako konektorea
- 2 Pizteko edo pantaila blokeatzeko tekla
- 3 USB-kablearentzako/kargagailuarentzako konektorea
- 4 Hurbiltasun-sentsorea
- 5 Belarrirako bozgorailua
- 6 Jakinarazteko LED
- 7 Argi-sentsorea
- 8 Ukipen-pantaila
- 9 Menuaren tekla
- 10 Hasiera tekla
- 11 Atzera tekla



- 12 Kameraren lentea
- 13 Bolumen-tekla
- 14 Kamera-tekla
- 15 Bozgorailua
- 16 Uhalaren gakoia




LEDaren egoera

| | |
|------------------|--|
| Berdea | Bateria erabat kargatuta dago. |
| Gorri keinukaria | Bateriak karga gutxi du. |
| Laranja | Bateria kargatzen ari da. Bateria maila baxuaren eta altuaren artean dago. |


Berde keinukaria


Irakurri gabeko mezu bat edo dei galdu bat dago.

-  Telefonoa kargatzen ari denean baina bateriaren karga oraindik baxua denean, LEDak ez ditu jakinarazpenak adierazten (berde keinukaria).

Bateria kargatzea

Telefonoaren bateria zertxobait kargatuta dago telefonoa erosten duzunean. Telefonoa energia-iturri batera konektatzen duzunean, baliteke minutu batzuk pasatzea bateriaren ikonoa bistaratu aurretik. Telefonoa erabil dezakezu kargatzen ari den bitartean.

-  **Bateria deskargatu egingo da pixkanaka, erabat kargatuta dagoenean, eta, ondoren, berriro kargatuko da denbora bat pasatu ondoren. Bateriaren iraupena luzatzeko gertatzen da hori, eta baliteke karga-egoeraren adierazleak % 100etik behera dagoela adieraztea.**




Elektrizitate-egokigailuarekin telefonoa kargatzeko

- Konektatu telefonoa elektrizitate-hartune batera USB kable bat eta elektrizitate-egokigailua erabiliz.

Telefonoa ordenagailu batekin kargatzeko

- 1 Konektatu telefonoa ordenagailu bateko USB ataka batera, telefonoaren kitarekin batera datorren USB kablea erabiliz.
- 2 Ukitu **Telefonoa kargatu**.

Telefonoko teklak erabiltzea



Menú

- Uneko leihoan edo aplikazioan dagoen aukera-zerrendetako bat irekitzen du.



Inicio

- **Hasierako pantailan** edo aplikazioen paneletan sartzen da, edozein aplikazio edo pantailatatik.
- Erabili berriak dituzun aplikazioen leihoak irekitzen ditu.




Atrás

- Aurreko pantailara itzultzeko balio du. Pantailako teklatura, elkarrizketa-koadroa, aukeren menua edo Jakinarazpen panela ixten du.

Hasierako pantaila

Hasierako pantaila telefonoaren hasierako gunea da. **Hasierako pantaila** pertsonaliza dezakezu. Horretarako, widget-ak erants ditzakezu edo hondoa eta izkinetako aplikazioak aldatu.

- ! **Widget-a hasierako pantailaren aplikazio baten zati bat da. Aplikazio jakin baten informazio garrantzitsua erakusten du. Adibidez, Sony Ericsson Timescape®-ren widget-ak jasotako mezuak bistaratzen ditu, eta Mediaren widget-a zuzenean musika erreproduzitzen hasten da.**



Hasierako pantaila handituta ikusteko



- Arrastatu hatza pantailaren ertzetara.

Hasierako pantailaren hondoa aldatzeko

- 1 Ukitu .
- 2 Ukitu **Aldatu horma-papera**.


3 Hautatu aukera bat.

Hasierako pantailara widget-ak erants ditzakezu

- 1 Ukitu 
- 2 Ukitu **Antolatu widget-ak > Gehitu widgeta**.
- 3 Hautatu widget bat zerrendan.
- 4 Sakatu  editatzeko modutik irteteko.

Egoera-barra


Pantailaren goialdean dagoen egoera-barrak telefonoaren egoerari eta jakinarazpenei buruzko informazioa erakusten du. Jakinarazpen-ikonoak egoera-barraren ezkerrean daude, eta telefonoaren egoeraren ikonoak eskuinaldean. Egoera-barratik jakinarazpenen panelera jo dezakezu.



Jakinarazpenen panela

Jakinarazpenen panelean, jakinarazpenaren ikonoak ikuspegi xehatuan agertzen dira. Jakinarazpenen paneletik zuzenean ireki ditzakezu jakinarazpenak (mezuak, gogorarazleak edo gertaeren jakinarazpenak). Horrez gain, exekutatzen ari diren aplikazioak ireki ditzakezu (musika-erreproduzitailea edo irratia, kasu).

Jakinarazpenen panela irekitzeko



- Arrastatu egoera-barra beherantz.

Jakinarazpenen panela ixteko

- Sakatu ←
- Arrastatu gorantz jakinarazpenen panela.


Jakinarazpenen paneletik exekututzen ari den aplikazio bat irekitzeko

- Jakinarazpenen panelean, ukitu exekututzen ari den aplikazioaren ikonoa, ireki ahal izateko.

Aplikazioen panelak

Zure telefonoaren aplikazioetara jo dezakezu aplikazioen panelen bidez. Panel-motak ikusteko, telefono-pantailaren ezkeraldera eta eskuinaldera mugitu behar da.




Zure gustuen arabera sortu ditzakezu panel berriak eta antolatu ditzakezu aplikazioak.



•••• Adierazi zer aplikazio-paneletan zauden

Aplikazio-panelak irekitzeko



! Hainbat modutara ireki ditzakezu aplikazioen panelak.

- Hasierako pantailan, arrastatu  gorantz.
- Hasierako pantailan, ukitu .
- Ukitu hasierako pantaila gorantz.
- Hasierako pantailan, sakatu .



Aplikazio-panelak arakatzeko


- Aplikazio-paneletan, ukitu eskuinera eta ezkerrera.

Aplikazio-panel berria irekitzeko


- 1 **Hasierako pantailan**, sakatu .
- 2 Ukitu **Antolatu ikonoak**.
- 3 Segitu ukitzen azken paneleko elementu bat, bibratzen hasi arte, eta ondoren, arrastatu eskuinerantz.
- 4 Ediziotik ateratzeko, sakatu .

Aplikazio bat ateratzeko

- 1 **Hasierako pantailan**, sakatu .
- 2 Ukitu **Antolatu ikonoak**.
- 3 Segitu ukitzen azken paneleko elementu bat, bibratzen hasi arte, eta arrastatu ertzetako batera edo beste aplikazio-panel batera. Azkeneko aplikazio-paneleko elementu bat mugitzen baduzu, panela hurrengora aldatuko da.
- 4 Editatzeko modutik ateratzeko, sakatu .

 Aplikazio-paneletako elementuak ez dira aplikazioetarako sarbide zuzenak, baizik eta aplikazioak berak. Aplikazio-paneletako aplikazio bat ertz batera mugitzean, edo alderantziz, aplikazioa mugitu egiten da, eta ez da sarbide zuzenik sortzen. Ez dago aplikazioetarako sarbide zuzenik.

Ukipen-pantaila erabiltzea

-  Telefonoak pantaila gidari bat du. Pantailan hezetasuna dagoenean, baliteke ondo ez funtzionatzea.

Elementu bat ireki edo nabarmentzeko

- Sakatu elementu bat.

Aukerak markatu edo ezeztatzeko



- Aukera bat markatu edo ezeztatzeko, ukitu dagokion egiaztatze-laukia edo, kasu batzuetan, zerrendako aukeren eskuineko alde.

- Egiaptapen-laukia markatuta.
- Egiaptapen-laukia markatu gabe
- Zerrendako aukera markatuta
- Zerrendako aukera markatu gabe

Argazki panoramiko bat ateratzeko

- Aukera hori erabilgarri dagoenean, arrastatu pantaila, argazki panoramiko bat ateratzeko.

Zooma erabiltzeko

- Erabilgarri dagoenean, ukitu  edo  zoomarekin urruntzeko edo hurbiltzeko.
- Segi ukitzen eta arrastatu kontrola gorantz edo beherantz, zooma hurbiltzeko edo urruntzeko.

- **Baliteke behatza pantailan arrastatu behar izatea (edozein norabide-tan) zoomarekin ikonoak ager daitezen.**

Korritzea

Orria gora eta behera korritu dezakezu, eta, zenbait web-orritan alboetara ere bai.

- **Arrastatu egiten baduzu edo hainbatetan ukitzen baduzu, ez duzu ezer aktibatuko pantailan.**

Teklatua erabiltzea

Aplikazio bat abiaraztean edo testua edo zenbakiak behar dituen eremu bat hautatzean, teklatura agertzen da.

Testua sartzeko teklatura agertu dadin

- Ukitu testua sartzeko eremu bat.


Teklatua ezkutatzeko

- Testua sartzen ari zarenean, ukitu 

Testua idazteko:

- Teklatuan ikusgai dagoen karaktere bat idazteko, ukitu karakterea.
- Letra baten aldaera sartzeko, mantendu teklatuko letra sakatuta, eta erabilgarri dauden aukeren zerrenda agertuko zaizu. Ondoren, zerrendako aukera bat hautatu behar duzu. Adibidez, “e” idazteko, mantendu sakatuta “e” zerrenda bat agertu arte, eta, ondoren, hautatu “e” zerrenda horretan.

Maiuskulatik minuskulara eta alderantziz aldatzeko

- Letra bat idatzi aurretik, ukitu 





Zenbakiak edo sinboloak sartzeko

- Testua sartzen ari zarenean, ukitu  Zenbakiak eta sinboloak dituen teklatu bat agertuko da.

Testua editatzeko

1. Testua idaztean, mantendu sakatuta testu-eremua **Testua editatu** menua agertzen den arte.
2. Hautatu aukera bat.

Idazteko hizkuntza aldatzeko

- 1 Testua idaztean, ukitu  edo mantendu sakatuta 
- 2 Ukitu.
- 3 Hautatu idazteko erabili nahi dituzun hizkuntzak. Amaitzean, sakatu  zenbait aldiz, testua idaztera itzultzeko.
- 4 Sarrerako hizkuntza bat baino gehiago hautatu badituzu, ukitu  hautatutako hizkuntzen artean aldatzeko.


Telefonoaren doikuntzen deskribapen orokorra

Telefonoa konfiguratu dezakezu zure beharretara egokitu dadin. Adibidez, **Data eta ordua**, **haririk gabekoak** eta **datu-sinkronizazioa** aukeretan doikuntzak egin daitezke.

Telefonoaren doikuntzetara sartzeko

- 1 **Hasierako pantailan**, arrastatu  gorantz.
- 2 Bilatu eta ukitu **Ezarpenak**.

SIM txartelaren PIN kodea aldatzeko

- 1 **Hasierako pantailan**, arrastatu  gorantz.
- 2 Bilatu aukera hauek eta ukitu: **Ezarpenak > Segurtasuna eta kokapena > SIM txartelaren blokeo ezarpenak > Aldatu SIM PIN kodeak**.
- 3 Sartu SIMaren aurreko PINa, eta ukitu **Ados**.
- 4 Sartu SIMaren PIN berria, eta ukitu **Ados**.

Mezuetarako eta Interneterako doikuntzak deskargatzeko

- 1 **Hasierako pantailan**, arrastatu  gorantz.
- 2 Bilatu eta ukitu **Ezarpenak > Oinarrizko ezarpenak > Deskargatu ezarp.**

Datu-zirkulazio osoa desaktibatuzko


- 1 **Hasierako pantailan**, arrastatu  gorantz.
- 2 Bilatu eta ukitu **Ezarpenak > Hari gabeko kontrolak > Sare mugikorrak**.
- 3 Ezabatu **Datu trafikoa** egiaztapen-laukiaren hautapena.

Deiak



Larrialdi-deia egiteko

- 1 **Hasierako pantailan**, ukitu .





- 2 Sakatu larrialdiko zenbakia eta ukitu . Zenbaki bat ezabatzeko, ukitu .

 Larrialdi-deiak egin ditzakezu telefonoan SIM txartela sartu gabe.

SIM txartela blokeatuta dagoenean larrialdi-deiak egiteko

- 1 Ukitu **Larrialdi deia**.
- 2 Sakatu larrialdiko zenbakia eta ukitu . Zenbaki bat ezabatzeko, ukitu .

Deia egiteko

- 1 **Hasierako pantailan**, ukitu .
- 2 Dei-erregistroa agertzen bada, ukitu  markatzeko teklatuaren ikuspegi joateko.
- 3 Sartu hartzailearen zenbakia eta ukitu . Zenbaki bat ezabatzeko, ukitu .

Deia amaitzeko

- Ukitu .

Dei bati erantzuteko




- Arrastatu adierazlea honaino: .



Kontaktuak


Kontaktuak ikusteko

- Hasierako pantailan, ukitu  kontaktuak aplikazioa irekitzeko.



 Ez baduzu telefonoa konfiguratu web-zerbitzu batekin sinkronizatze-ko edo ez badituzu SIMeko kontaktuak inportatu, Contactos irekitzen duzun lehen aldian egin ditzakezu ekintza horiek.


SIM txartetik kontaktuak inportatzeko

- 1 Hasierako pantailan, ukitu .
- 2 Sakatu  eta, ondoren, ukitu >.
- 3 Ukitu Ados.

 Erabiltzen ari zaren SIM txarteleko kontaktuak inportatu badituzu, ez da beharrezkoa berriro egitea.


SIM txartelera kontaktuak esportatzeko



- 1 Hasierako pantailan, ukitu .
- 2 Sakatu  eta, ondoren, ukitu >.
- 3 Ukitu Ados.


 Kontaktuak SIM txartelera kopiatzean, kontaktu bakoitzean transferi daitekeen informazio-kopurua eta informazio-mota mugatuta egongo dira. SIM txartelek memoria mugatua dutelako gertatzen da hori.

Testu- eta multimedia-mezuak


Mezuak sortzeko eta bidaltzeko



- 1 Hasierako pantailan, ukitu .
- 2 Ukitu Mezu berria.

- 3 Ukitu **Idatzi mezua**, idatzi mezuaren testua eta ukitu **Jarraitu**.
- 4 Hartzaile bat gehitzeko, hautatu zerrendako kontaktu bat. Bestela, testu-eremua ukitu, zenbakia eskuz sartu eta, ondoren, **Eginda** uki dezakezu.
- 5 Argazki bat edo bideo bat erantsi nahi baduzu, ukitu  eta hautatu aukera bat.
- 6 Hartzaileak gehitu, kendu edo editatu nahi badituzu, sakatu  eta, ondoren, ukitu **Editatu hartzaileak** eta edita itzazu.
- 7 Amaitutakoan, ukitu **Bidali**.

 **Bidali baino lehen mezutik irteten bazara ,mezua zirriborro moduan gordeko da. Mezu bidezko elkarrizketa Borrador hitzarekin etiketatuko da.**

Jasotako mezu bat irakurtzeko

- 1 **Hasierako pantailan**, ukitu .
- 2 Ukitu mezu bidezko elkarrizketa bat.
- 3 Mezua ez bada oraindik deskargatu, ukitu ezazu, eta, ondoren, ukitu **Mezua deskargatu**.
- 4 Jasotako mezuak musika edo bideo bat badu, ukitu elementua, eta, ondoren, ukitu **Bideoa ikusi** edo **Audioa entzun**.


 **Multimedia-mezu bat edo testu-mezu bat jasotzean,  agertuko da egoera-barran. Mezua irakurtzeko, aukera duzu egoera-barra behe-rantz arrastatu eta egoera-barra irekitzean jasotako mezua irekitzeko.**

Posta elektronikoa

Ohiko posta elektronikoko kontutik mezu elektronikoak bidaltzeko eta jasotzeko erabil dezakezu telefonoa.



- 💡 **Microsoft® Exchange Server-ekiko sinkronizazioa konfiguratu dezakezu zure telefonoko Dataviz® RoadSync® aplikazioaren bidez.** Hala, zure telefonoko RoadSync Mail aplikazioa erabili ahal izango duzu Microsoft® Exchange Server-eko zure posta-kontuarekin. Joan www.dataviz.com webgunera informazio gehiago eskuratzeko.


Posta elektronikoko kontu bat telefonoan konfiguratzeko

- 1 **Hasierako pantailan**, arrastatu  gorantz.
- 2 Bilatu **Posta elek.** aukera, eta ukitu.
- 3 Ukitu **Helbide elektronikoa**, sartu zure helbide elektronikoa eta ukitu **Jarraitu**.
- 4 Sartu pasahitza eta ukitu **Eginda**.
- 5 Ukitu **Jarraitu**.
- 6 Telefonoak ezin baditu automatikoki deskargatu zure posta elektronikorako ezarpenak, eskuz sar daitzakezu.



- 💡 **Doikuntzak eskuz sartu behar badituzu, jarri harramanetan posta elektronikoko zerbitzu-hornitzailearekin, kontuko ezarpen egokiak eskuratzeko.** Adibidez, kontu-mota POP3 ala IMAP den jakin behar duzu.

Mezu elektronikoak sortzeko eta bidaltzeko

- 1 **Hasierako pantailan**, arrastatu  gorantz.
- 2 Bilatu **Posta elek.** aukera, eta ukitu.
- 3 Ukitu **Idatzi berria**.
- 4 Ukitu **Nori**; sartu hartzailearen helbidea, eta, ondoren, ukitu **Eginda**. Hartzaile gehiago eransteko egin ekintza bera, eta hartzailearen bat kendu nahi baduzu, ukitu .


- 5 Ukitu **Gaia**, sartu gaia eta ukitu **Eginda**.
- 6 Ukitu **Posta elek.** idatzi, sartu mezuaren testua eta ukitu **Eginda**.
- 7 Fitxategi bat eransteko, ukitu  eta hautatu erantsi nahi duzun fitxategi-mota.
- 8 Ukitu **Bidali**.

Mezu elektronikoak jaso eta irekitzeko

- 1 **Hasierako pantailan**, arrastatu  gorantz.
- 2 Bilatu **Posta elek.** aukera, eta ukitu.
- 3 Ukitu **Sarrera-ontzia**.
- 4 Sarrerako ontzia mezu berriekin eguneratzeko, ukitu .
- 5 Mezu bat ireki eta irakurtzeko, ukitu mezua.

Sony Ericsson Timescape™


Sony Ericsson Timescape™-k zure harreman sozialak eraldatzen ditu, komunikazio guztiak leku bakarrean gordetzen ditu eta. Gertaera guztiak –Facebook-eko edo Twitter-eko eguneraketak, testu-mezuak eta multimedia-mezuak, dei galduak–mosaiko moduan ageri dira pantailako fluxu kronologiko batean. Gertaera bakoitzaren aurrerapen txiki bat ikusi ahal izango duzu eduki guztia aukeratu aurretik. Gertaerak motaren arabera sailka ditzakezu, kontaktu baten komunikazio guztiak ikusteko.

-  **Gerta daiteke kapitulu honetan azaltzen diren zenbait zerbitzu eta funtzio eragilgarri ez egotea herrialde/eskualde guztietan, edo gerta daiteke eremu batzuetako zenbait sare eta/jedo zerbitzu-hornitzaile-rekin bateragarriak ez izatea.**

Timescape™ abiarazteko

- 1 **Hasierako pantailan**, arrastatu  gorantz.
 - 2 Bilatu **Timescape** aukera, eta ukitu.
 - 3 Timescape™ lehen aldiz abiaraztean, **Hasi** ukitu eta saioa **Facebook**-eko edo **Twitter**-eko zure kontuan has dezakezu, **Facebook**-eko eta **Twitter**-eko eguneraketak Timescape™-n jasotzeko. Ez baduzu saioa hasi nahi, ukitu **Jarraitu**.
-  **Facebook™, Twitter™ edo lineako beste zerbitzuren batean saioa hasi baduzu telefonoa lehen aldiz konfiguratzean, inicie Timescape™ abiarazten duzunean ongietorri-pantaila ez da agertuko, eta ez dizu eskatuko saioa berriro hasteko.**
 -  **Ez baduzu saioa hasi, ukitu Jarraitu, eta saioa hasierako pantailatik hasi ahal izango duzu beti. Horretarako, ukitu Ezarpenak > Sony Ericsson > Timescape™ ezarpenak.**

Timescape™-ko hasierako pantaila



1 Laukien eragazkiaren ikonoa

2 Egoera-eguneraketaren ikonoa

3 Kontaktura joateko ikonoa


4 Eguneratzeko ikonoa (web-zerbitzuko kontu batean saioa hasi duzunean soilik egongo da erabilgarri)

5 Timescape™-ko laukiak, ordena kronologikoan


6 Laukiko edukiaren ikonoa

Facebook™-ko edo Twitter™-ko zure egoera Timescape™-n eguneratzeko

1 **Hasierako pantailan**, arrastatu  gorantz.

- 2 Bilatu **Timescape** aukera, eta ukitu.
- 3 Ukitu .
- 4 Ukitu **Hautatu zerbitzuak**
- 5 Erabili kontrolak zure egoera zein zerbitzutan eguneratu nahi duzun hautatzeko. Saioa hasi ez duzun zerbitzu batean zure egoera eguneratu nahi baduzu, sakatu zerbitzua eta hasi saioa unean bertan. Nahi dituzun zerbitzuak hautatutakoan, ukitu **Eginda**.
- 6 Ukitu **Editatu egoera**, sartu zure egoera berria eta ukitu **Bidali**.

Timescape™-n gertaera bat ikusteko

- 1 **Hasierako pantailan**, arrastatu  gorantz.
- 2 Bilatu **Timescape** aukera, eta ukitu.
- 3 Joan nahi duzun gertaeraren laukira, eta ukitu ezazu.

Android™ Market


Zure telefonoa pertsonalizatzeko aplikazio eta eduki osagarriak deskarga ditzakezu, eta erabiltzeko modu berriak aurkitu. Android™ Market irekitzen duzunean, aplikazio eta jokoen munduan sartzen zara. Aplikazioak eta jokoak kategoriaren arabera ikus ditzakezu, eta nagusiak deskargatu. Android™ Market erabiltzeko, ezinbestekoa da Google™ kontu bat izatea.

- 💡 Litekeena da Android™ Market ez egotea eskuragarri herrialde edo eskualde guztietan.
- 💡 Telefonora edukia deskargatzean, telefonora transferitutako datu-kopuruaren arabera kobratuko zaizu agian. Jarri harremanetan zure operadorearekin datuen transferentziei dagokienez zure herrialdean dauden tarifei buruzko informazioa lortzeko.

Aplikazioak eta edukia deskargatu aurretik

Deskargatu aurretik, egiazta ezazu baduzula Interneteko konexioa. Era berean, telefonoan memoria-txartel bat izan beharko duzu, beharbada, musika, tonuak eta gaiak deskargatzeko.

Android™ Market irekitzeko:


- 1 **Hasierako pantailan**, arrastatu  gorantz.
- 2 Bilatu **Market** aukera, eta ukitu.

Sinkronizazioa

Zure telefonoaren eta ordenagailuaren arteko edukia sinkronizatzea modu erraz eta praktikoa da bi gailuetan kontaktu, mezu edo egutegiko gertakizun berak partekatzeko Hainbat modutan sinkronizatu dezakezu:



- Sony Ericsson Sync: sinkronizatu Sony Ericsson-en kontu batekin, kontaktuak hainbat telefonoren artean transferitzeko eta zure telefonoko kontaktuen segurtasun-kopiak egiteko.
- Google Sync™: sinkronizatu zure telefonoa zure Gmail™, Google Calendar™ eta Google™-eko kontaktuekin.
- RoadSync™: sinkronizatu, eta jaso zure telefonoan zure posta elektronikoa, zure kontaktuak eta zure enpresako egutegia. Zure enpresak Microsoft Exchange Server 2003 edo berriagoa erabili behar du.

Zure telefonoan Sony Ericsson-en kontu bat sortzeko


- 1 **Hasierako pantailan**, arrastatu  gorantz.
- 2 Bilatu eta ukitu **Sink**.

- 3 Ukitu **Sony Ericsson Sync**.
- 4 Ukitu **Sign up**. Sony Ericsson kontu bat sortzeko, bete erregistro-laguntzailearen jarraibideak.
- 5 Nahi izanez gero, aldatu lehenetsitako sinkronizazio-doikuntzak. Ukitu **Save**.


Sony Ericsson Sync-en bidez sinkronizatzeko


- 1 **Hasierako pantailan**, arrastatu  gorantz.
- 2 Bilatu eta ukitu **Sink**.
- 3 Zerrendatutako sinkronizazio-elementuak sinkronizatzeko, ukitu sinkronizazio-ikonoa .

Sinkronizazio automatikoak Google™ sync-en konfiguratzeko

- 1 **Hasierako pantailan**, arrastatu  gorantz.
- 2 Bilatu **Ezarpenak > Datuen sinkronizazioa** aukerak, eta ukitu.
- 3 Markatu **Erreferentzia datuak** egiaztatze-laukia.
- 4 Markatu **Sinkronizazio automatikoa** egiaztatze-laukia.
- 5 Markatu automatikoki sinkronizatu nahi dituzun sinkronizazio-elementuen egiaztatze-laukiak.

RoadSync™-en sinkronizazioak konfiguratzeko

- **Kontuaren konfigurazio zuzena ezagutzeko, jarri harremanetan Microsoft™ Exchange Server-en administratzaile batekin.**
- 1 **Hasierako pantailan**, arrastatu  gorantz.
 - 2 Bilatu eta ukitu **RoadSync Mail**.
 - 3 Microsoft™ Exchange Server **RoadSync Mail, RoadSync Calendar** eta **Kontaktuak** aplikazioekin sinkronizatzeko, bete pantailan agertzen diren jarraibideak.

- 4 Zure kontuan doikuntzak egin ondoren, kontuko lehentasunak aldatu ditzakezu. Amaitzean, sakatu , eta, ondoren, ukitu **Amaituta**.

Telefonoa konektatzea

Konektatu telefonoa ordenagailu batera, eta hasi irudiak, musika eta bestelako fitxategiak transferitzen. Telefonotik ordenagailura USB kable bat konektatu besterik ez duzu egin behar ordenagailuan PC Companion instalatzen hasteko. PC Companion aplikazioak multimedia-fitxategiak transferitu eta antolatzeko, telefonoa eguneratzeko eta gehiagotarako aplikazio gehigarriak eskuratzen lagunduko dizu.

- ⚠ **Baliteke copyright bidez babestutako material jakinen bat telefonoaren eta ordenagailuaren artean ez transferitzea.**

Telefonoaren eta ordenagailuaren artean edukia arrastatu eta askatzeko

- 1 Konektatu telefonoa ordenagailura USB kable batez bidez.
- 2 **Telefonoa:** Ukitu **Telefonoa konektatu**. Memoria-txartela ordenagailuan muntatuta dago.
- 3 **Ordenagailua:** itxaron telefonoaren memoria edo memoria-txartela fitxategi-arakatzailan kanpoko disko gisa bistaratu arte.
- 4 **Ordenagailua:** Arrastatu eta askatu hautatutako fitxategiak, telefonotik ordenagailura eta alderantziz.

USB kablea segurtasun osoz deskonektatzeko

- ⚠ **Ez deskonektatu USB kablea edukia transferitzen ari diren bitartean, hondatu egin baitaitezke.**
- 1 **Ordenagailua:** ziurtatu hardwarea segurtasunez erauzteko aukera gaitu duzula.
 - 2 **Telefonoa:** arrastatu egoera-barra beherantz.

- 3 Sakatu **Desactivar almacenamiento USB**.
- 4 Sakatu **Desactivar**.
- 5 Deskonektatu USB kablea.

- 🔊 **Ordenagailuaren jarraibideak desberdinak izango dira sistema eragilearen arabera. Ikus ordenagailuaren sistema eragilearen dokumentazioa, informazio gehiago lortzeko.**

PC Companion instalatzeko


- 1 Konektatu telefonoa ordenagailura USB kable batez bidez.
- 2 Ukitu **PC Companion instalatu**.
3. **Ordenagailua:** PC Companion automatikoki abiaraziko da ordenagailuan segundo batzuk eta gero. Segi pantailako jarraibideei, PC Companion aktibatzeko.

PC Companion erabiltzeko

- 1 Konektatu telefonoa ordenagailura USB kable batez bidez.
 - 2 **Telefonoa:** Ukitu **Telefonoa konektatu**
 - 3 **Ordenagailua:** PC Companion automatikoki abiaraziko da ordenagailuan segundo batzuk eta gero.
- 🔊 **PC Companion automatikoki abiarazten ez bada, ordenagailuko hasierako menutik hasieraz dezakezu.**

Telefonoa eguneratzea

Software-eguneratzeak haririk gabe deskargatzeko

- 1 **Hasierako pantailan**, arrastatu  gorantz.
- 2 Bilatu **Ezarpenak > Telefonoari buruz > Software-eguneratzea** aukerak, eta ukitu. Bete pantailako jarraibideak, telefonoa eguneratzeko.

Software-eguneratzeak USB kable bidez deskargatzeko

- ⚠ Ez deskonektatu USB kablea telefonoa eguneratzen ari zaren bitartean, telefonoaren dukia honda baitezake. Bukatutakoan, ziurtatu hardwarea modu seguruan kentzen duzula ordenagailutik.
 - 💡 Jarraibide hauek jarraitzeko, PC Companion ordenagailuan instalatuta eduki behar duzu. PC Companion instalatzeko, konektatu telefonoa ordenagailura USB bidez, eta jarraitu telefonoko pantailako jarraibideei.
- 1 Konektatu telefonoa ordenagailura USB kable batez bidez. PC Companion instalatu berri baduzu, deskonektatu telefonoa ordenagailutik, eta berriro konektatu software-eguneratzeak deskargatzen saiatu baino lehen.
 - 2 Ukitu **Telefonoa konektatu**.
 - 3 **Ordenagailua**: itxaron segundo batzuk PC Companion abiarazi arte. PC Companion automatikoki abiarazten ez bada, ordenagailuko hasierako menutik hasieraz dezakezu.
 - 4 Sakatu **Área de asistencia técnica > Actualización de software**, eta jarraitu pantailako argibideei telefonoa eguneratzeko.
- 💡 PC Companion erabiltzen ari zarela jakinarazpenak ere jasoko dituzu telefonorako software-eguneratzeak erabilgarri daudenean.

IMEI zenbakia

Telefono bakoitzak IMEI zenbaki bakar bat du (ekipo mugikorraren nazioarteko identitatea). Gorde zenbaki horren kopia bat.

Telefonoa lapurtzen badizute, sare-hornitzaileak zure IMEI zenbakia erabil dezake telefonoa zure herrialdeko sarean erabiltzea eragozteko.

IMEI zenbakia ikusteko



- IMEI zenbakia bateriaren azpian dago.




Arazoak nola konpondu

Bateriaren errendimendua

- ! Itxarote-denbora da sare-estaldura osoa eta seinale-intentsitate handia duen leku batean telefonoak telefonoa sare-operadore bati konektatuta egiten duen denbora. Itxarote-denbora desberdina izan daiteke sareko posizioaren eta seinale-intentsitatearen arabera. Zenbat eta denbora gehiago egin telefonoak itxarote-denboran, orduan eta gehiago iraungo du bateriak.

Aholku hauek bateriaren errendimendua hobetzen lagunduko dizute:


- Kargatu telefonoa maiz.
- Desaktibatu WLAN eta Wi-Fi™ funtzioak erabiltzen ari ez zarenean. Ez da beharrezkoa 3G desaktibatzea.
- Android™ Market-en aplikazio batzuek bateriaren errendimenduari eragiten diote. Komeni da bateriaren erabilera-menuan begiratzea zer aplikazioek kontsumitzen duten gehien bateria. Menu horretara joateko, aukeratu **Ezarpenak > Telefonoari buruz**.
- Konfiguratu telefonoaren sinkronizazio-aplikazioak, adibidez, RoadSync™, eskuz funtzionatzeko. Sinkronizazioa eskuz egin dezakezu, baina denbora-tarteak aldatuz.
- Sarera etengabe konektatzea eskatzen duten aplikazioak (adibidez, Facebook™ eta Twitter™) eguneratzeko maiztasuna jeistea gomendatzen da (edo eskuzko konfigurazioa jartzea).
- GPS behar duten aplikazioak erabiltzen ez badituzu, adibidez, Google Maps™, GPS desaktibatzea komeni da.
- Sare-estaldurarik gabeko gune batean bazaude, telefonoa aldi baterako itzaltzea gomendatzen da. Bestela, telefonoak erabilgarri dauden sareak bilatuko ditu etengabe, eta horrek energia kontsumitzen du.
- Gehitu energia kontrolatzeko widget-a **Hasierako pantaila**-ri, Wi-Fi™, haririk gabeko Bluetooth™ teknologia, GPSa, bigarren mailako datuak eta pantailaren distira erraz aktibatzeke eta desaktibatzeke.

-  Energia kontrolatzeko widget-a gehitzeko, sakatu  Antolatu widget-ak > Gehitu widgeta eta, ondoren, hautatu Bateriaren kontrola
-  Ikus www.sonyericsson.com/support webgunea, bateriaren errendimendua maximizatzeari buruzko informazio gehiago eskuratzeko.

Ohiko galderak

Nire telefonoak ez du behar bezala funtzionatzen
Arazoren bat baduzu telefonoarekin, kontsultatu itzazu aholku hauek beste irtenbideren bat probatu aurretik:

- Berrabiarazi telefonoa.
- Kendu bateria eta SIM txartela, eta sartu berriro. Ondoren, berrabiarazi telefonoa.
- Eguneratu telefonoa. Eguneratu ezazu telefonoa errendimendu egokia lortzeko eta azken hobekuntzetara sartzeko.
- Berrezarri telefonoa.

 **Telefonoa berrezartzean, izan pazientzia. Berrezartzen ari den bitartean telefonoa berrabiaraziz gero, baliteke telefonoari kalteak eragitea eta ezin konpondu ahal izatea.**

Telefonoa berrezartzea

Telefonoa berrezartzean datu guztiak ezabatzen dira, deskargatutako aplikazioak barne, eta telefonoa hasierako egoeran berrezartzen da, hau da, lehen aldiz piztu aurretik zegoen egoera berean. Telefonoa berrezarri aurretik, ziurtatu telefonoan gordetako datu garrantzitsuen segurtasun-kopia egin duzula.

Telefonoa berrabiarazteko

- 1 **Hasierako pantailan**, arrastatu  gorantz.
- 2 Bilatu **Ezarpenak > SD txartela, USB memoria eta telefonoaren barneko biltegia > Jatorrizko datuen berrezartzea > Berrezarri telefonoa auke-rak**, eta ukitu itzazu.
- 3 Ukitu **Ezabatu guztia**.

Telefonoa kargatzen jartzen dudanean ez da karga-ikonoa bistaritzen
Bateriaren ikonoa pantailan agertu arte, baliteke minutu batzuk igarotzea.

Ezin ditut edukiak transferitu telefonoaren eta ordenagailuaren artean USB kable batekin

Softwarea edo USB kontrolatzaileak ez dira ondo instalatu. Instalazioari buruzko argibide gehiago eskuratzeko eta arazoak konpontzeari buruzko ataletara sartzeko, ikus www.sonyericsson.com/support.

Errore-mezuak

Ez da sare-estaldurarik

- Telefonoa hegazkin moduan dago. Ziurtatu hegazkin modua desaktibatuta dagoela.
- Telefonoak ez du sare-serialik jasotzen edo seriala oso ahula da. Jarri harremanetan sare-operadorearekin eta ziurtatu sareak estaldura duela zu zauden tokian.
- SIM txartela ez dabil behar bezala. Sartu beste telefono batean. Beste telefonoan ondo funtzionatzen badu, litekeena da arazoa telefonoarena izatea. Kasu horretan, jarri harremanetan gertuen duzun Sony Ericsson zerbitzu-zentroarekin.

Larrialdi-deiak soilik

Sare-estaldura baten barruan zaude, baina ezin duzu erabili. Hala ere, larrialdietan, sare-operadore batzuek nazioarteko larrialdietarako zenbakira (112) deitzeko aukera ematen dute.

PIN kodea sartzea.

PIN kodea gaizki sartu duzu hiru aldiz segidan. Telefonoa desblokeatzeko, operadoreak eman dizun PUK kodea behar duzu.

SIM txartela PUK kodearekin blokeatuta dago.

PUK kodea (desblokeatzeko kode pertsonala) gaizki sartu duzu hamar aldiz segidan. Jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

Lege-informazioa

Sony Ericsson E15i/E15a

Erabiltzailearen eskuliburu hau Sony Ericsson Mobile Communications AB-ek edo hari lotutako tokiko enpresak argitaratu du, eta ez da inolako garrantiarik eskaintzen. Sony Ericsson Mobile Communications AB-ek edozein unetan eta alde zuzenetik jakinarazi gabe egin ditzake aldaketak erabiltzailearen eskuliburu honetan, akats tipografikoak zuzentzeko, oraingo informazioaren zehaztasun falta osatzeko edo programa edo ekipoetan hobekuntzak egin direlako. Dena den, aldaketa horiek eskuliburu honen hurrengo edizioetan sartuko dira. Eskubide guztiak erreserbatuta.

©Sony Ericsson Mobile Communications AB, 2010

Argitalpen-zenbakia: 1237-9468.1

Zure telefono mugikorrek eduki osagarriak (adibidez, dei-tonuak) deskargatzeko, gordetzeko eta bidaltzeko gaitasuna du. Eduki hori mugatuta edo debekatuta egon daiteke hirugarren alderdien eskubideen ondorioz, indarrean dauden jabetza intelektualeko legeek ezarritako mugak barne (baina horietara mugatu gabe). Telefono mugikorrean deskargatu dezakezun edo bertatik bidal dezakezun eduki gehigarriaren erantzule bakarra zu zeu zara, eta ez Sony Ericsson. Edozein eduki gehigarri erabili aurretik, egiaztatu eduki horren erabilera lizentzia bidez edo beste moduren batera behar bezala baimenduta dagoen.

Sony Ericsson-ek ez du inolako eduki gehigarrien edo hirugarrenen edukien zehaztasunik, osotasunik edo kalitate bermatzen. Sony Ericsson-ek ez du inolaz ere eduki gehigarrien edo hirugarrenen edukien bidegabeko erabileraren erantzukizunik izango.

Erabiltzaile-gida honek hirugarrenek hornitutako zerbitzu edo aplikazioei egin diezaieke erreferentzia. Programa edo zerbitzu horiek erabiltzeko, baliteke hornitzailearekin aparteko erregistro bat egin behar izatea eta beste erabilera-baldintza batzuen mende egotea. Hirugarren baten webgunetik sartzen garen aplikazioen kasuan, kontsultatu, aurrez, webgune hori erabiltzeko moduak eta dagokien pribatutasun-politika. Sony Ericsson-ek ez du bermatzen hirugarrenen webguneen eskuragarritasuna edo errendimendua, ez eta horiek eskainitako zerbitzuena ere. Bluetooth SIG Inc.-en marka komertziala edo erregistratua da, eta Sony Ericsson-en marka horren edozein erabilera lizentziapean dago. Sony Ericsson Mobile Communications AB-ren marka komertzialak edo erregistratuak dira Liquid Identity, Xperia, Timescape eta X8 logotipoak . Sony Corporation-en marka komertzialak edo erregistratuak dira Sony eta “make.believe”. Google, Inc.-en marka komertzialak edo erregistratuak dira Google, Google Maps, Gmail, Google Sync, Google Calendar eta Android .

Telefonaktiebolaget LM Ericsson-en marka komertziala edo erregistratutakoa da Ericsson.

Dataviz, Inc.-en marka komertzialak edo erregistratuak dira Dataviz eta Roadsync.

Facebook, Inc.-en marka komertziala edo marka komertzial erregistratua da Facebook.

Twitter, Inc.-en marka komertziala edo marka komertzial erregistratua da Twitter.

Wi-Fi Wi-Fi Alliance-ren marka komertzial bat da. Wi-Fi.

Estatu Batuetako edo beste herrialde batzuetako Microsoft Corporation-en marka erregistratuak edo komertzialak dira Microsoft, Windows, Windows Vista, Windows Server eta Explorer.

Microsoften jabetza intelektualaren zenbait eskubidek babesten dute produktu hau. Debatuta dago teknologia hori produktu honetatik kanpo banatzea Microsoften berriazko baimenik gabe.

Dokumentu honetan aipatzen diren gainerako produktu- eta enpresa-izenak beren jabeen marka komertzialak izan daitezke. Hemen berriaz azaltzen ez diren eskubide guztiak erreserbatuta. Gainerako marka guztiak dagozkien jabeenak dira.

Irudi guztiak erreferentziarako erabiltzen dira, eta ez dira telefonoaren deskribapen zehatzak.



2008ko Kudeaketaren Kalitatearen
Urrezko Q saria



Q Oro Premio a la Calidad de
Gestión 2008